

'Lekuak', biografia
kutsua duen liburua
kaleratu du
Atxagak ▶ 6



Harpidedunei banatua ▶ Ostirala ▶ 2005-12-02 ▶ III. urtea ▶ 752. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

MARGOT GONZALEZ ETA MANUEL LARRAÑAGA ▶ PAKO LARRAÑAGAREN GURASOAK

«Semea aske utzi bezain laster Alegiara etorriko gara bizitzera»

ALEGIA ▶ Margot Gonzalezek eta Manuel Larrañagak semearen errugabetasuna aldarrikatu dute

ITXAROPENA ▶ Eguberrietarako Filipinetako presidentearen barkamena espero dute ▶ 4-5



Manuel Larrañaga eta Margot Gonzalez, HITZAREKIN solasean, Alegian; jendearengandik jasotako babesa eskertu dute. INIGO TERRADILLOS

TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA ▶

Euskararen alde, festa giroa eta konpromiso ugari

Euskararen Eguna Areson eta ikastetxeetan ▶ 7

TOLOSA ▶



N. URBIZU

Bonbereneak ekoiztutako azkena, labetik atera berria

'Bonberenea txaranga', kalean ▶ 6

HIZKUNTZAK
• Helduentzat eta lantegientzat zuzendutako INGELERA Cambridge eta H.E. Oko azterketetarako prestakuntza, etab.
• FRANTSESA • ALEMANA • ARABIERA • EUSKARA
• GREKERA • ITALIERA • JAPONIERA
• HOLANDESA • Gaztelania atzerritarrentzat

ITZULPENAK
• INGELERA • ARABIERA • GAZTELANIA
• ITALIERA • ARABIAZ itzulpen ziurtatuak

TALDE TXIKIAK
• Arreta PERTSONALIZATUA eta berezia
• LOGOPEDA zerbitzua • Hezkuntza berezia

ERREFORTZU KLASEAK
• MATEMATIKA • DISEINUA • FISIKA • KIMIKA

maia guztiak

Irakaslegoa: bertakoa, kualifikatua eta esperientziaduna
M.J Iraola, 2 behea • **TOLOSA** • Tel.: 943 67 24 48 - 686 97 19 62

TOLOSA ▶

Udalak eskualdeko telebista sortzeko diru multzoa gordetzea erabaki du osoko bilkuran

Tolosaldea Garatzen ari da proiektua bultzatzen; «TEPEn ez da hausnarketarik egin», dio Lasa Euskara batzordeburuak ▶ 3

TITIRIJAI ▶



Borrokan. Askotarikoak dira Aranburu Jauregiko erakusketan dauden txotxongiloak. Horien artean, asko dira jainkoei eskainitakoak: euriaren jainkosa, itsasoaren jainkoa... Hala ere, Txinako txotxongiloen artean borrokalaria anitz aurki daitezke. Argazkikoa, adibidez, lehoiokin ari da borrokan. I. ETXEBESTE



Mitologia. Txinako mitologiako pertsonaia ugari aurki daitezke txotxongilo erakusketan; animalien artean, garrantzi berezia dute txerri eta tximinoek. Argazkikoa tximino aurpegia du, hain zuzen. I. E.



Lau modu. Txinan lau modu dituzte txotxongiloak egiteko, eta era guztietakoak dira ikusgai Aranburu Jauregian: harizkoak, esku zorrozkoak, hagatxoz edo makilez egindakoak eta itzalezkoak. I. ETXEBESTE



Mila aurpegi. Txinan egindako txotxongilo mordoia ikus daitezke Aranburu Jauregian dagoen erakusketan; animalien aurpegiak dituzte horietako batzuk, eta gizakienak besteek. Aurpegi gorriek borrokalaria irudikatzen omen dituzte; zuriek, berriz, pertsona jakintsuak. I. ETXEBESTE

Txinako mitologiako pertsonaiak, zintzilik

'Txinara leihoa' erakusketa ikusgai da Aranburu Jauregian; kondairetan agertzen ziren pertsonaia ugari aurki daitezke

IRATXE ETXEBESTE

«Txinako mitologian bada pertsonaia bat, euria egiten zuenean zeruan zulo handi bat zegoelako zela pentsatzen zuena: Euriaren jainkosa. Egun batean, halako euri jasa bota zuen, Txina osoan uholdeak izan zirela. Orduan, jainkosak harri bat hartu zuen, zeruraino hegan egin, eta estali egin zuen bertako zuloa». Tolosako 27.

Txotxongilo Jaialdia dela-eta Aranburu Jauregian dagoen *Txinara leihoa* erakusketa ikustera joan zen atzo HITZA, eta arduradunek eskualdeko ikas-tetxe ezberdinetatik joandako haurrei eta gaztetxoei emandako azalpenak entzuteko aukera izan zuen. Euriaren jainkosarena, tarteko.

Bestelako kontu batzuk ere jakin ahal izan zituen: esate baretako, aurpegia gorritz margo-

tuta duten txotxongiloak borrokan ibiltzen zirela, eta zuri-dunak, berriz, apalak zirela. Apalak eta jakintsuak. Azken horiek bibote luzeekin irudikatzen dituzte txinatarrek.

Bestalde, antzina egiten zizuten txotxongiloak ugariak dira erakusketan, baina badira garaikideak ere. «Horiek, batez ere, haurrei zuzendutakoak dira», esan dute erakusketaren arduradunek. Eta, itxura alde-

rik, ezberdintasun handia dutela esan behar da.

Txinan lau modu dituzte txotxongiloak egiteko, eta era guztietakoak aurki daitezke Aranburu Jauregiko erakusketan: harizkoak, esku zorrozkoak, makilez edo hagatxoz egindakoak eta itzalezkoak. Bitxiak dira azken horiek. Oihal garden moduko baten atzetik maeiatzen dituzte tximuen edo behien larruazalez egindako txotxongiloak, makiltxoekin. Ohialaren bestaldean dagoen ikusleak itzalak baino ez ditu ikusten horrela. Itzal koloretsuak, hori bai, Txinako txotxongilo gehienak kolore askoz egindakoak direlako.

Txinan urte bakoitza animalia batek irudikatzen duela ere jakina da. Oiloaren urtea omen dute aurtengoa, eta hurrena txakurrarena izango ei da. Itzalezko txotxongiloen artean

Etzi arte zabalik dago

Etzi, hilaren 4an, amaituko da Tolosako 23. Txotxongilo Jaialdia, eta ordura arte izango da zabalik Aranburu Jauregian jarrita dagoen *Txinara leihoa* erakusketa. Ikasleak bisita gidatuak ari dira egiten. Herritarrek goizez eta arratsaldez dute bertara joateko aukera, 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. ◀

maiz ikus daitezke horrelakoak ere. Txinako kondairetako pertsonaiak eta gaur egun txinatarrek telebistan-eta ikusten dituztenak harrietatik zintzilik ikusi nahi izatera, Aranburu Jauregira joan.

ANOETA ▶

Himen eta Desoreka taldeak Gaztetxean

ERREDAKZIOA

Anoetako Gaztetxeak kontzertua antolatu dute gaurkorako, 23:00etan. Himen eta Desoreka taldeak dira ariko dira beren musika eskaintzen. Berakoak (Nafarroa) dira Himen taldekoak eta Zulo beltza izeneko maketa bat grabatuta daukate. Hardcore eta metal estiloko jorrazten dituzte. Desoreka-k diska bat argitaratu berria dute eta aurkezpen bira abiatzera doaz gaurko kontzertuarekin. Musika mota konkretu batetik baino leku askotatik edaten duen taldea da.

LARRAUL ▶

Kultur Astea egingo dute gaur hasi eta igandera arte

ERREDAKZIOA

Larraulen Kultur Astea izango dute gaurtik hasi eta igandera arte. Herriko haurrentzako merienda egingo dute gaur Katillutxulo elkartearen, 17:00etan. Haurrentzako bideo emanaldia eskainiko dute, 18:00etan. Bertso afariarekin amaituko dute eguna, 21:00etan. Bihar, 15:30ean, mus txapelketa izango da Katillutxulo elkartearen. 17:00etan, Iraitz ipuin kontalariaren saioa. artisauek eta herriko argazki zaharren erakusketa ikusgai museoa, 17:00etatik 19:00etara. Etxi, 11:00etan, eskulan tailerra izango dute Katillutxulo Elkartearen. 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara artisauek eta herriko argazki zaharren erakusketa ikusgai museoa. 16:00etan, gazte eta gaztetxoek eskupilota erakustaldia Murgilazpi pilotalekuan. Azkenik, 18:00etan, talo eta gaztain jatea Katillutxulo Elkartearen.

ZUZENKETA ▶

Atzoko Hitza Leitzako Arro baserrikoa Kristina Jauregi zela argitaratu zen, baina bere izena Kristina Saralegi da.

TOLOSA ▶ UDALA

Tolosako Udalak eskualdeko telebista sortzeko diru multzoa gordetzea erabaki du

Proiektu hori Tolosaldea Garatzen ari da bultzatzen, eta Onintza Lasa Euskara batzordeburuak esan du gaiari buruz «TEPEn hausnarketarik ez» dela egin

IMANOL GARCIA

Berriz ere azalera irten du eskualdeko balizko euskarazko telebistak. Lehengo astean TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK telebista sor dezan eskualdeko talde zabala sortu zen, sustatzaile gisa. Asteartean, berriz, Tolosaldeko Udalak egindako azkeneko osoko bilkuran atera zen gaia, eta Tolosaldea Garatzenek bultzatutako eskualdeko telebista izan zuten hizpide. Hain zuzen, Euskara eta Hezkuntza Batzordeak proposatu eta bilkuran onartutako mozioaren ondorioz, Udalak balizko telebista horretarako diru multzoa gordetzea erabaki zuten; 2006an eta 2007an biztanleko bi euroko diru laguntza. Bilkuran zeuden zinegotzi guztiak onartu egin zuten —Andoni Imaz EAJkoa eta Jose Maria Vieites EBkoa falta ziren—, PPko Jorge Juan Outeiralek izan ezik, abstenitu egin zelako.

Jokin Bildarratz, Tolosaldeko alkate eta Tolosaldea Garatzeneko lehendakariak eman zuten mozioaren berri. Bertan azaltzen zuten, Tolosaldea Garatzenen administrazio kontseiluak uztailaren 7an eginiko bileran, eskualdeko telebista martxan jartzeko proiektuari oniritzia eman zioten, eta horretarako eman beharreko lehen pausok jartzeko erabakia hartu zuten. «Lehen urratsak Tolosaldea Garatzenek bideratuko ditu, Goierrri Telebistarekin batera», zehaztu du mozioak.

Proiektuaren hasierako inbertsioak, bai baliabide teknikoetan (enlaze sistemak, transmisoreak, seinaleak...), bai baliabide materialean (egoitza, ekipamendua, altzariak...) eta giza baliabideetan, Tolosaldea Garatzenek hartuko lituzke bere gain. «Baina telebista zerbitzua abian jarri ondoren, hau da, 2006. urtetik aurrera, eta eginiko aurreikuspenen arabera, udal bakoitzak biztanleko bi euro jarri beharko lituzke, telebistak jarraipena izan dezan», dio mozioak.

Osoko bilkuran ekarpenak egin zituzten alderdiek eta herriarrek. Onintza Lasa Udala



Tolosako Udaleko osoko bilkuren arriboko irudia. L. MONTES

Euskara batzordeburuak (EA) esan zuten telebistak euskaraz izan behar duela eta proiektuari babesa eman diotela, «euskarari ez zaizkiolako horrelako ekimenak egunero etortzen, eta beharrezkoak ditu». Euskalgintzarekin adostasuna lortu behar zela iritzi zion: «Nahiago genukeen, beste gai batzuekin egin den bezala, telebistaren proiektu honetan ere euskalgintzako elkarrekin adostasunera iristea, onartu aurretik».

Tolosako Udalak erabakia hartu du, baina Lasak esan zuenez, udal organuetan ez da «gaiaz hausnartu, ez TEPEn, ezta Euskara Batzordean ere». Lasak, halaber, proiektuari buruz azaldu diren zenbait zalantza «bideratzeko, EArekin kontatzea» eskatu zuten. «Gure boitek duten balioez jabetuta, gustatuko litzazuke egindako gogoetek balio bera izango balukete». PPko eta PSE-EEko ziteran bertan izan zutela gaiaz lehen albistea.

Hitza Telebista Sustatzeko Taldekoen galdera

Tolosaldeko Hitza Telebista Sustatzeko Taldeko kide Joxemi Saizarrek galdetu zuen TEPEn (Tolosaldeko Euskararen Plan Estrategikoan) herriko eragile eta taldeekin harremanetan jarriko ote diren, bere garaian HITZA egunkariarekin bezala. Bildarratz alkateak erantzun zuen «proiektua irekia» dela «eta laster egingo zaie deialdia elkarrekin biltzeko».

Inaxio Agirre ezker abertzaleko eta TEPEko Jarraipen Batzordeko kideak bere gogoeta eta galderak egin zituen osoko bilkuren bukaeran. «HITZA Telebista proiektua baztertzeko eta EAJren telebista egitea: egunkaria, irratia, Internet eta telebista, eta horren aurrean telebista instituzional bat egingeko eta alderdi baten ideolo-

JOKIN BILDARRATZ
ALKATEA

«Lehen urratsak Tolosaldea Garatzenek emango ditu, Goierrri Telebistarekin batera»

ONINTZA LASA
EUSKARA BATZORDEBURUA

«Onartu aurretik, nahiko genukeen euskalgintzarekin adostu izan balitz»

INAXIO AGIRRE
TEPE-KO KIDEA

«TEPEk dioenaren kontra, telebista instituzionala egiteko arriskua dago»

gia zabaltzeko arriskua dago». Horrela, «egunkariarekin funtzionatu duen formula zergatik baztertu den» galdetzen du Agirrek eta alkateak «mahai bat eratuko ote duen, non HITZA telebista proiektuak bere lekua izango duen. Elkarrekin eta galderak egin zituen osoko egindako lana bultzatu behar dute instituzioek eta herri ekimenak egindako lanaren osagarri izan behar dute».

Tolosaldeko beste udalerrri batzuetan ere onartu dute mozio bera —Villabonan eta Ibañan—, eta eskaera bera egingo du Tolosaldea Garatzen eskualdeko garapen agentziak beste udaletan ere.

► hilberriak
► urteurrenak
► eskertzak

**Gipuzkoan
50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldekohitza.info

hilberriak ▶

Rosario Fernandez Gonzalez

Nere bake kuttunera izutuko duen trumoirik ez da harkaitz horri lotzen natzaion, lotzen natzaion bitartean kantatuzten jarraituko det.

Betirako,

Ainhua, Yoana eta Bakartxo

TOLOSA, 2005eko abenduaren 2a

MARGOT GONZALEZ ETA MANUEL LARRAÑAGA ▶ PAKO LARRAÑAGAREN GURASOAK

«Pako aske uztean lehen hegazkina hartu eta Alegiara etorriko gara hirurok bizitzera»

Eguberrietarako Gloria Macapagal Filipinetako presidentearen barkamena izatea espero dute Pako Larrañagaren gurasoek; jasotako babesa eskertu eta Pakoren errugabetasuna aldarrikatu dute

I. TERRADILLOS-N. LATABURU

Pako Larrañagaren gurasoak, Margot González eta Manuel Larrañaga. Alegiara izan dira aste honetan, azken honen jaioterria, hain zuzen. Pako gastearen kasuko hilde legal guztiak agortuta eta Filipinetako presidente Gloria Macapagalen barkamena baino geroztan ez den unean erabaki da bikoteak Filipinetatik etortzea, semeari buruzko dokumentala Espainiako Cuatro katean aurkezteko. Halaber, Duskal Herriko, Espainiako zein Europako Batasuneko erakundeak eragiten ari diren presioak lagunduta nune egokienak dela pertsonatu du familiar. Ixarropena inoiz baino puztagoa dute eta Pako baten artean izatea espero dute Eguberri hauek. Hitzorzu ugari izan dituzte biesta labur honetan, baina Hitzari ere tartea eskaini diote, egoeraren gainean jarduteko. Alegiako plazan egin zuten topo haiek, eta hitz egiten babesean lekuko izan zen bertan.



IGDO TERRADILLOS

Nola gertatu zen guztia? Chiong atzipak 1997ko uztailaren 16an erabili zituzten, eta une horretan Pako Manilan zegoen sukaldaritza ikasari ari zela, gertakaria jaso zenetik ehunka kilometroetara. Aurreko egunetan Pako Cebura etorri nahi zuela esan zidan, nire [Margot] urtebetetze eguna baitzen 20an. Beraz, 16an eta 17an zituen atertetak bukatu ondoren egin nahi zuten Cebura bisita, ondoren 20an arratsaldean bueltatzeko, astelehenean eskoletatik batzitzuten. Bere ikasleak Pakoren izen ziren 16an eta 17an, 08:00etatik

aterketak batzitzizuten. 16an gausez, lagun batzuekin egon zen, Cebura zertorenez agurtu egin behar zituen eta. Lagunek zutenen, Pako oso gustura zegoen, eta bere bi Margartekin egongo zela zioen, bere neskalaguna Margarita baitzen. **Froga argiak daude, beraz, bere errugabetasunaren adierazle.** Bai, bere 95 ikasleekin eta irakasleek Pako berarekin zegoela baleratu zuten; halaber, hegazkin batzuek ere frogatzen zuten Pako bertan izatea ezinezkoa zela. Baina hauek ez zituen onartu epailetan. Pakok ez zituen Chiong ahipak ezagutzen, baina lekukoak omen di-

tzute Pako gertakariaren unean, merkatalgunean izan zela bi neska horiekin esaten dutenak. Ondoren lekuko karguak adieraziakoaen arabera, neskak bahuu, Cebu kanpoaldeko herri batera eramain eta bostxoi egin zituzten Pakok eta bere lagunak. Deklaratu ostean, lekuko kargu hau aske gertatu zen. Beste epailetako bat, Aznarrek, esan zuten Martxoi buitzatu eta amildegi batekin erori zela. **Bermerik gabeko epaileta izan zen, orduan?** Guk kontiantza osoa genuen Filipinako justizian, baina epaileta ez zen zuzena izan. Besteak beste, Pako berak ere ezin

izan zuten deklaratu epailetan zehar, ez zituen bere burua defendatzen utzi. Bere abokatuek bermerik gabeko epaileta hura ikusaten, protesta egin zuten eta kasua utzera behartu zituzten. Orduan espetxeratu egin zituzten. 20 egunetan defentsarik gabe egon zen gure semea, baina epailetak aurrera egin zuten eta aintzat hartu ziren egin hauerako lekukoek esandakoak. Bestalde, prozesuan parte hartu zuten politikari abokatuek, fiskaliek, etekinera ateratzen jakin zuten. **Kanpo presioa ere izugarrikoa izan zen prozesuan.** Hala da. Komunikabideek gogor jo zuten batzere ere gure se-



IGDO TERRADILLOS

Noiz eta nola heldu zen Auzitegi Gorenaren erabakia?

Sei urte igaro ziren erabakia hartu zuten arte. Pakok behin eta berriro galdetzen zuten ea noiz iritsiko zen erabaki hori, eta guk ahalik eta egokien aztertzeko arko zirela erantzuten genion. Denbora hori gure onerako izango zela ikusten genuden, baina ez zen horrela izan, alderantziz baink; izan ere, heriotz-zigorra ezarri zioten Pako.

Nola hartu zuten Pakok berak albiastea?


Manilan bizi den lehenegusia harengana Joan zen goizeko goiz, eta bertan eman zion. Gu lehen hegazkina heldu ginen harengana. Bera indartu azaldu zen, gure aurrean behintzat. Hasieratik hau izan da bere jarrera eta berak erakusten duen indarrak eta fedetak laguntzen digu, hain zuzen, aurrera eginen. Bestela hondoa joko genuen aspaldi.

Oraín lekuko berri bat aldera da polizia batek prozesuan izan ziren irregulartasun batzuk aipatu ditu.

Ondo etorri zaigu, zizon horrek asko dakiela. Dena kontatuko bahu, asko lagunduko ligu-ka. Berak esandakoaren arabera, Pako ez zegoen sustagarrisen zerrendan, baina gureo askok dirua ordaindu zuten euren semeak zerrendan egon ez zitezten. Guk ez genuen horrelakorik egin. Zertarako egin? Gure Pako errugabek da. **Orduan, nola azaldu zen Pakoren izena?** Bere ikasle batekin izandako lekuzaren ondoren, autoan a zibioha, kanpoan zegoen

KEMENA

«Egoera zail honetan Pakok erakusten duen indarrak eta fedetak laguntzen digu honi guztiari aurre egingen»




IGDO TERRADILLOS

Bide judicial guztiak agortuta, Gloria Macapagal Filipinetako presidentearen esku dago dena orain.

Duela aste batzuk Gloria Macapagalek berak adierazi zuten boterean dagoen artean heriotz-zigorra ez dela guzuzteko aurrera eginen. Bestela hondoa joko genuen aspaldi. **Oraín lekuko berri bat aldera da polizia batek prozesuan izan ziren irregulartasun batzuk aipatu ditu.** Ondo etorri zaigu, zizon horrek asko dakiela. Dena kontatuko bahu, asko lagunduko ligu-ka. Berak esandakoaren arabera, Pako ez zegoen sustagarrisen zerrendan, baina gureo askok dirua ordaindu zuten euren semeak zerrendan egon ez zitezten. Guk ez genuen horrelakorik egin. Zertarako egin? Gure Pako errugabek da. **Orduan, nola azaldu zen Pakoren izena?** Bere ikasle batekin izandako lekuzaren ondoren, autoan a zibioha, kanpoan zegoen

ERRUGABETASUNA

«Pakori begietara begiratu eta birritan galdetu nion: 'Zu izan al zara?' Orduan jakin nuen errugabea dela»



IGDO TERRADILLOS

Matxerri al da Pako Alegiara bisitatu?

Oraín hamar urte etorri zen Alegiara Pako azkenez. Lan-traitera joaten zen bizkiletan. Asko gogoratzen da herriaren, gainera, lagunak ere egin zituen hemen. Ia bi hilabetez egon zen azken bisita hartan. Margot, Milagros arreba eta Pako izan ziren. Ni (Manuel) ez nintzen etorri. Izan ere, txandaka etortzen ginen, Filipinetan dugun linka zaindu beharra zegoen eta. **Alegiar bat Filipinetan. Nolan?** 1960ko abenduan [Manuel] hartu du hitza] joan nintzen hara hanbat gipuzkoar eta bizkaitar Cebu irian pilotaketa bat egiteko asmoz. Zenta-puntutara nintzen. Bitartean, Margot Martindren zegoen. Atzerriko ginen ministeriatan aritu zen bekadun. Cebura bueltatzen ezagutu genuen elkar, eta han gertatu nintzen. Cebura joan ginen bizitzera eta hiru seme-alaba izan ditugu: Maria Milagros, Imanol eta Pako. Buztira aruntan zen gertaria te-malgari bai jaso aurretik.

Irargaki laburrak ▶

SALGA	2.200 DCI, 2001.ekoa, Deltu 649
Motora , KTM EXC 250	89.98.03 zenbakia.
LANA	Supermerkata, Promotores eta aplik bidezko pertsonak behar
Autob. , Fiat Brava desiala salgai.	egileko 666.55.79.18 telefono zenbakia deli.
Autob. , Renault Space, Motora	

OSTATUA	
• Eguneko Menua (aste guztian, larunbat eta igandea ezik)	
• Kartia aste guztian zehar	
Urope plaza • Leaburu	Tel.: 943.67.15.48

ELZOLA	
• Etxeko albarak	
• Ondoagaituz egindako proiektuak	
• Ametzu erportatzen, martortan.	
10. IGDO TERRADILLOS ETXEREN HIRUROK BIZITZERA	Tel.: 943.65.29.01
	Lizardi postea, 2
	TOL. O.S.A.

txokoa ▶ HITZako harpidedunen artean

BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIKO FINALERAKO
bi sarrera zozketatuko ditugu.

Zozketan parte hartzeko delitu 943 65 56 95 telefonora (11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara).

Tolosaldeko eta Leiztaldeko HITZaren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

ASTEASU ▶ KULTURA

Idatzita ez dagoena ere, bada

Bernardo Atxagaren gogoetak eta memoriak, biografia kutsua duen liburuan

NEREA URBIZU

«Orrialdeen azpian dagoena ikusi behar da; liburu honetan gogoetak daude, pentsamenduak narrazio modu batean. Modu soilean, eta serioan aldi berean. Kutsu biografikoa, beraz, badu baita ere». Honela deskribatu du Bernardo Atxaga asteasuarrak *Lekuak* bere azken lana.

Gogora ekartzen du bere lehenengo 100.000 pezetak jaso zituen eguna: bere lehenengo egile eskubideak. Hori 1981. urteko otsailaren 23an izan zen, eta horrekin batera beste gertakizun politiko garrantzitsu bat berreskuratu du Espainiako historiari: estatu kolpea. Egun hori harentzat erabakiorra izan zen, bere egoera aldatuko zela ikusi zuen: alde batetik, idazle profesionala izatera pasatuko zen, publikoa. Horrek nolabait gizarateak zituen kezka askoren berri jakitera behartu zuen, eta posizio bat hartzea. Gizaratearen kezka horiek erantzun beharrean suertatu zen. Bestalde, euskal prentsan lan egiteko aukera handirik ere ez zegoela bistan zen. Eta, bukatzeko, idazten jarraitzea erabaki bazuen, horri denbora edo dedikazio ia eskusiboa eskeintzea erabaki zuen, eta euskaraz.

Aipatutakoak badu azken



Bernardo Atxaga idazlea eta Jose Angel Irigarai Pamielako ordezkaria, atzo, aurkezpenean. NEREA URBIZU

lan honekin zerikusia, beti kontatera horiek guztiak lekuekin lotzeko edo asoziatzeko joera erakusten du. Geografia beti dago. Liburuko Salzburgo-ri buruzkoak aipatu egin zituen, eta gogoetak dira kasu horretan. «Pentsamendu kontrastatuak hartu behar dira. Proba asko pasatutako ideiak direla uste dut liburuan agertzen ditudanak» aipatu zuen.

Jose Angel Irigarai Pamiela-

ko ordezkariak egindako aipamenean artean azpimarratzekoa da bere liburuarekiko inpresioa ere: «Leku, topos, toki horiek, Bernardo Atxagaren literatur munduan geldituz, etorri, joanez. Bere literatur mundu hori ezagutzeko liburu aproposa bezain berezia dugu».

Hasiara batean ez du liburuaz gatzeleraz argitaratzeko asmorik, «zuhurra izan behar gara

batzuetan; tradizioz ez duen hizkuntzan zergatik idazten duan bezalako galderak entzun eta erantzun behar izan ditut, eta ez da batere eroso». Momentuz, hortaz, euskaraz ikusi eta irakurriko dugu soilik. Ikusiko da denborarekin.

Liburuaren pentsatzen joan den heinean idatzi du, eta ez izan denaren heinean. Sentitzen duena eta pentsatzen duena batu egin ditu eta lekuekin

FITXA ▶



Liburuaren azala. HITZA

Izenburua. *Lekuak*.
Egilea. Bernardo Atxaga.
Argitaletxea. Pamiela.
Urtea. 2005.

asoziatu ditu. Zentzu horretan bere kutsu biografikoa dauka liburuak.

Bi ataletan banatzen da lana: lehenengo zatia testu buruari dagokio eta bigarrenean deskribatzen dituen espazioak, nolabait esatearren, fikzio kutsua dute. Horien barne Bilbografiak: bere Bilboko bibentzia- eta Marokon emandako denbora ere azaltzen ditu. Bere barne esperientziak ikusten dira. Biografia zati honetan bistakoagoa da. Memoria liburu dela ere esan du, modu batera edo bestera, arestian esan bezala, biografia pixka bat ere badu, eta bi gaiak lotuta daude. Ez du zehaztu, dena dela: berak nahigoen izan du «gogoeten memoria» dela esatea.

Idazlea hobe ezagutzeko liburu da, beraz, astesuarren *Lekuak*.

TOLOSA ▶ KULTURA

Bonbereneak ekoiztutako produktu erakargarriak: txarangaren diskoa

«Ongi pasatzea eta pasaraztea» helburu duen txaranga gaztearen fruitua kalean da

N. URBIZU

Bonberenea Txarangaren fruitu erakargarri bat entzungai: beraiek sortutako kantak eta baita bertsoak ere. Musika egiten duten gazte koadrila bat da, eta ez dute asmo handirik ere; ondo pasatzea, eta leku edo data zehaztetan soilik parte hartzea. Ramon Artetxeren zuzendaritzapean, proiektu ezin hobe kaleratu berri dute Tolosaldekoek.

Duela hiru urte sortutako

txaranga da Bonberenea Txaranga, eta kalean kalejira bat egiteko asmoarekin egituratu zen, Bonberenea gaztearen urteurrena ospatu behar zela eta. Egun seinalatu horretarako musikaz zekiten gazte lagun askok talde kozkor hau osatu zuten; aipatu kalejira egin, eta, proiektu hori aberatsa izan zitekeela ikusita, gaur egun ere horretan darraite.

Gazte hauen ibilbidea motza bezain berezia da: Deabruak Teilatuetan talde tolosarraren



Bonberenea txaranga musikotzaileetako batzuk. N. URBIZU

Bonberenea kantua bertsiotan egin nahi zuten, txaranga tresnekin jotzeko moldaketa bat egin, alegia, eta ia horren

ondorioz esandako beste guttia etorri zen. Bonberenean bertan grabatu zen diskoa, ekain aldera, Karlos Osinaga

(Txap) eta Imanol Urizarren eskutik. Bonberenearen filosofia-ri jarraituz, autogestioan oinarritu da, bai ekoizpena eta baita grabaketa ere beraien kabuz egina, alegia. Bistan da Bonbereneak eskaintzen duen beste fruitu berritzaileetako bat dela. Kalean jo izan dutenean harreko oso ona izan dute; esaterako, Tolosako Inauterietan helduagokoek oso ondo ikusi zuten ekintza eta taldea bera.

Hilaren bederatzian izango da zazpi kantuz osatuta dagoen *Bonberenea Txaranga* diskoa entzuteko aukera, kalejira moduan aterako baitira Tolosako kaleetan barna, 19:00etik aurrera. Bestalde, 17an, beraien kasa bazkari bat egingo dute —«parranda egun bikaina espero da»—.

Disko alai hau 8 euroren truke eskuratu ahal izango da. Orain entzutea eta honetaz gatzatea besterik ez da falta.

LEITZA ▶

Charlie mutiko gaztearen bizipenak ikuskizun

J. ASTIBIA

Asteburu luzea egokituta, saio berezia esakiniko dute honetakoan Leitzako zine-man. Ikuskizun jarriko duten filma ere fantasiatzkoa izanik, gaurko 22:30eko eta etziko 19:30eko saioez gain, bihar beste bat gehiago eskainiko dute, 16:30ean, honetakoan sarrera 3 euroan jarrita, ohi baino 2 merkeago. Umeak erakarri nahi dituzte saio horretara.

Eta filma *Charlie y la fábrica de chocolate* izanen da, Tim Burtonek zuzendutakoa: familia txiro samarreko Charlie mutiko gazte borondatea, oso misterioitsu eta bakarti den Willy Wonkaren txokolategia du bere begikoa. Wonkak sariketa antolatzen du, saria txokolategira bisita dela, eta beste ikaragarri bat ere bai.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))

Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 65 23 39

- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun etxea: 672411
- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitz. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Orea. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion Klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

- ▶ DYA: 672536
- ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

Garrarioak.

- ▶ Renfe Tolosa: 652889
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
- ▶ Taxia: 670420
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurreremendi egoitza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320

EUSKARAREN EGUNA ▶

Euskararekiko konpromisoak, festak, Euskararen Egunean

Eskualdeko ikastetxeetan ez ezik Areson ere Euskararen Eguna eginen dute

JAIONE ASTIBIA

Bihar, abenduak 3, Nafarroaren Eguna da eta jai izanen da herrialde honetan. Eta, aldi berean, Euskararen Eguna ere bada, eta Euskal Herri osoan antolatutako daude gure hizkuntzaren aldeko modu bateko edo besteko ekitaldiak.

Horrela egiten dute Areson azken 13 urte hauetan. Herrian Euskararen Eguna festa antolatzen du bertako Guraso Elkarteak, herriko elkarten eta Udalaren laguntzarekin eta Euskara Zerbitzuaren ekarpenarekin, «guztia herriko gazteek eta jendeak egindako jardunarekin», elkarteak berak azaldu duenez: «iragarpenerako kartelak ere, eskolan egun honen inguruan egindako marrazki lehiaketakoak dira», nabarmenduz.

Umeentzako ohiko jokoak, bertako pilotarien partiduak, herriko gaztetxoek dantza saioa, Sun magoaren saioa... izanen dira ikuskizun egun guztian zehar. Jakitera eman dutenez, goiz partean taloak salgai jarriko dituzte, eta jaialdiari bukaera, «nahi duen guztiarentzat», txokolate beroa bizkotxoekin banatuko dute. Eguerdiartean, ordea, zeregin izanen dute, bestalde, herri bazkarian jatekoak dituzten banabarrak prestatzen ariko direnek. Izan ere, urtero jakiren bat prestatzen hobereza zein den, txapelketa egiten dute, eta aurrean banarrak izanen dituzte prestatu beharrak: parte-hartzaileei antolakuntzak emanen dizkiete banabarrak prestatzeko beharrezko osagaiak eta bazkalordurako aurkeztu beharko dute eltzaria. Goxoenak sarria jasoko du, baina gainerakoak ez dira hutsik geldituko. Edozein moduz, «sakra mentuak» lagun dituzte, 80-100 lagun bilduko dira prestatutako banabarrak jateko. Ekitaldi hauek guztiak Trinteketan egitekoak dituzte.

Aitatu zuten, «azken hamabi urtetan egin bada ere», zehaztu zuten, «aurten ez da Trikitixa Txapelketarik eginen».

Eta Areson larunbatean, egunean bertan den gisan, eskualdeko ikastetxeetan ere hainbat ekintza antolatzen dituzte Euskararen Eguna dela eta.



Aurten ez da Trikitilarik Txapelketarik izanen Areson. Irudian, iaizo txapeladunak. UNAI ZABALETA

Ikastetxeetan batez ere

Tolosan berean, esaterako, hiru ikastetxetako berriak iritsi dira HITZARA. Hirukiden atzotik hasiak dira ekintzekin, «euskara lagunartean eta esparru ez-formaletan ere erabil daitekeela» adierazten duen DVDa ikusiz. Gaurkoan, zikloka, askotariko ekintzak dituzte iragarritako, «konpromisoak» hartzea, irratsaioak (11:30ean eta bihar 10:00etan errepikatuko dutena); filmak, gela guztieta-ko ikasleek prestatutako abesti, dantza... jaialdia, euskal jolasak, antzerki, irrintzi, dantza tailerrak, bertso saioak, baita merienda ere.

Modu beretsuak eginen dute Laskorain Ikastolan ere. Nahiz Sakramentinetan, nahiz Usabalen, adin bakoitzari dagozkion jarduerak izanen dituzte egun osoan zehar. Aitatzekoa, konparazioa, «ipuin kontaketa kidegata saioak» egiteko asmoa dutena, handienek tikienei ipuinak kontatuz. Bestela, irratsaioak, bertso saioak, asmakuntza eta abesti lehiaketak, filmak, gaztelaniazko esapiddeen bilduma... Helduenek *The Balde* aldizkaria lan tresnatarako hartuta, «euskaraz hitz egitea eta euskal kultura ez dela modernoak» ustearekin «apurtu» nahi dute. Ikastetxe honetako Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleek eguna «gaztain janarekin» bukatuko dute.

Eta Samaniegon, berriz, aste osoan zehar aritu dira Euskararen Egunaren gaia lantzen. Manto maskotaren dotoretasun berezitik hasi eta egunero eta zikloka, megafonia eskaini dituzten emanaldietara. Gaur, berriz, goizean zehar «euskaren aldeko manifestua» irakurriko dute eta egun honen inguruko galdera batzuk erantzunen dituzte; arratsaldean, Txan magoaren emanaldia izanen dute.

Anoetaldian ere, Herri Ikastolan, «euskal kulturarekin zertikusia duten zenbait ekintza» burutuko dituzte. Irratsaioarekin hasiko dute eguna; eta egunean zehar ere, *Euskaraz Bizi* lelorako ikastolako logoa izanen dena egin eta aukeratu dute. Bitartean, *Kutsidazu bideak*, *Ixabel* antzerkilanaren bideoa ikusi, euskal kantak abestu... eginen dituzte. Iruran, Anoetaekin prestatutako ekitaldi berak izanen dituzte, eta gaztain jatea eginen dute amaitzeko.

Villabonako Flemingean, gaztain jatea eta jolasak eginen dituzte Arroan; gela bakoitzak prestatutako emanaldiekin jaialdia, Arratzainen. Eta Jesusen Bihotza Ikastolan, berriz, astelehenean eginen dute Euskararen Eguna. Txerminen, ipuin kontalaria eta ahozko adierazpena izango dituzte mailaka eta marrazkiak eginen dituzte ikastola girotzeko; Zentroan, horma irudiak egin eta

EGITARAUAK ▶

Bihar Euskararen Eguna izanik, herrietan ez ezik batez ere ikastetxeetan antolatuko dituzte festa egunak han eta hemen, gaurtik hasita. Guztiak euskararen aldeko aldarria dute oinarri.

GAUR

- Tolosa.
 - ▶ Hirukide Ikastetxea.
 - ▶ Samaniego Ikastetxea.
 - ▶ Laskorain Ikastola.
- Ibarra.
 - ▶ Uzturpe Ikastola.
- Villabona.
 - ▶ Fleming Eskola.
- Irura.
 - ▶ Irurako Ikastola.
- Anoeta.
 - ▶ Anoetako Herri Ikastola.

BIHAR. ARESON

- 12:00. Kalejira.
- Ondoren. Umeentzat jokoak.
- 12:30. Pilota partidua.
- 13:30. Dantza saioa.
- Goizean zehar. Talo dastaketa eta banar txapelketa.
- 14:00. Herri bazkaria.
- 17:00. Magia saioa.
- Ondoren. Txokolate beroa.

ASTELEHENA

- Villabona.
 - ▶ Jesusen Bihotza Ikastola.

ahozko adierazpena landuko dute.

Azkenik, Ibarraldera joanez, Uzturpe Ikastolan ere izanen dute ekitaldirik. Lujanbio eta Mendiluze bertsoariaren saioa izanen dute, baina gai jartzaile ikasleak izanen dituzte. Tiki-entzat jolasak eginen dituzte eguerdi aldera.

Hauetan eta beste askotan ospatuko dute, bada, eguna.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. Bihar Euskararen Eguna dela baliatuta, honako gai hau jarri dugu mahai gainean: «Nola ikusten duzue euskararen egoera eskualdean? Zer dago ospatzeko? Zer hobetzeko?» Eman zuen iritzia, besteekin berri izan...

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko abenduaren 2a, ostirala ▶ III. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldean



beroena

11

hotzera

9

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldean



ELURRA ARALARREN



Guardetxe:

gaur: bai / bihar: bai

Pagomari:

gaur: bai / bihar: bai

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zantalak argitzeko, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Amezketak. Gazte Taldeak antolatuta, babarrun jatea egingo dute etzi. 12:30ean hasiko da festa, triki bertso poteoarekin, Errekaldetik abiatuta; 14:00ak aldera, babarrun jatea Zazpi Itturri elkarte, Jokin Uranga eta Xabier Silbeira bertsolariek girotuta; bazkal ostean, autobusa jarriko dute Hernanira, han festa jarraituko. Txartelak salgai daude herriko tabernetan, 21 eurotan.

Larraul. 17:00etan, herriko haurrentzako merienda, Katillubulo elkarte; 18:00etan, haurrentzako bideo emanaldia; 21:00etan, bertso afaria. Kultur Astearren baitan.

Tolosa. Jabier Gordo errefuxiatuaren espertzeratzea dela eta, Amnistiarekin Aldeko Mugimenduak kontzentrazioa deitu du. Gaur izango da elkarretaratzea, 19:30ean, Trianguloan.

Tolosa. Otoitzaldia, apaiz bokazioen alde. 20:00etan, Santa Klara monastegian. Tolosako Artziprestaldeak antolatuta, denontzat irekia eta, batez ere, pastoragileentzat.

Tolosa. Nerea Herrarteren ipuin kontaketa. 18:00etan, Haur Liburutegian. Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta.

Tolosa. Tolosaldeko Triatloi Taldeak bilerara deitu ditu taldekideak zein taldean aritu nahi dutenak. Denboraldi berria datorrela eta, lizentzia kontuak aztertuko dituzte. Hurrengo urterako lan banaketa, proiektuak eta egitasmoak ere izango dituzte hizpide. Bihar da hitzordua, 13:00etan, Kultur Etxean.

HITZALDIAK

Zizurkil. Nola konsensuatu araua eskola komunitatean?

Ramon Flecha Bartzelonako Unibertsitateko irakasle eta Creaco zuzendariarekin. 16:30etik 18:30era, Pedro Mari Otaño Herri Eskolan.

MUSIKA

Anoeta. Himen eta Desoreka taldeen kontzertua. 23.00etan, Gaztebean.

Tolosa. Angelays, Peachy Joke eta Eko taldeen kontzertua. 22:30ean, Bonberenean.

Tolosa. Lor eta Biok. Bihar, 22:30ean, Bonberenean.

TITIRIJAI 05

Tolosa. Txekiako Vita Marcik antzerki taldearen *Edurnezuri eta zazpi ipobak*, 17:30ean, Gorosabalen; Madrigo Teatro de la Luna taldearen *On Kixoteren antzerki txikia*, 18:30ean, Kultur Etxean; Txinako Zhangzhou Puppet Troupe taldearen *Eskuzorroaren magia*, 22:30ean, Kasinoan.

ZINEMA

Leitza. Tim Burtonen *Charlie y la fabrica de chocolate*. Gaur, 22:30ean; bihar, 16:30ean; etzi, 19:30ean. Zinema aretoan.

KIROLAK

GAUR

Areto futbolak.

▶ Laskorain-Amuiz (3. Maila A). 20:45, Usabal.
▶ Laskorain-Amara (Nesken Liga-seniorrak). 20:45, Illaramendi.
▶ Tinta Billabona-Zestoa (Nesken Liga-seniorrak). 20:30, Olaederra.

Pilota.

▶ Mikel Olazabal-Mikelpertzena (Huarterko lau

t'erdiko Txapelketako finalaurrea). 18:30, Huarter.
▶ Aurrera-Saiaz-Intxaurre (Xabier Telleria-Koldo Galarraga; jubenil maila). Elkarteen Arteko Txapelketako finalurrekoa). 22:00, Bidania.
▶ Aurrera-Saiaz-Zazpi Itturri 1 (Mikel Beloso-Jabi Oteiza; senior maila). Elkarteen Arteko Txapelketako finalerdia). 20:00, Amezketak.
▶ Arrasateko-Aurrera-Saiaz (Axier Telleria-Ion Orbegozo; seniorren 3. maila). Elkarteen Arteko Txapelketako finalerdia eta 2. mailara igotzeko aukera). 20:00, Arrasate.
▶ Aurrera-Saiaz 2-Illunpe 1 (Igor Aranzabe-Joseba Senperena; seniorren 3. maila). Elkarteen Arteko Txapelketako finalerdia eta 2. mailara igotzeko aukera). 20:15, Ibarra.

Zesta-punta.

▶ Beotibar 1-Donostia Jai Alai 2 (Mujika-Telleria; kadeteak). 19:30, Uzturpe kiroldegia. Elkarteen Arteko Txapelketa.

BIHAR

Areto futbolak.

▶ Hegoalde-Mostoles (Emakumezkoen Oheroko Maila). 18:00, Usabal.
▶ Ibarra-Sasikoa (Nazional A Maila). 18:30, Belabieta.
▶ Transportes Lakuntza-Bar Pari Berri (1. Maila). 18:30, Olaederra.
▶ Iturriondo-Laskorain (Nazional B. Maila). 16:15, Txuridinaga.
▶ Bar Buenetxea-Cash Converters (2. Maila). 17:00, Lasarte.
▶ Oiarzun-Eskolapioak (2. Maila). 17:00, Elorsoro.
▶ Jostaldi-Laskorain (3. Maila B). 15:00, Azpeitia.
▶ Tolargi-Zarautz B (3. Maila B). 16:00, Usabal.
▶ UDA-Anoetako Gazte

Asanblada (3. Maila B). 17:00, Aretxabaleta.
▶ Lasarte-Hirukide Eskolapioak (Jubenil Liga). 11:00, Lasarte.
▶ Eskolapioak-San Benito (Nesken Liga-jubenilak). 11:00, Lasarte.

Futbola.

▶ Intxurre-Lasarte Ori (Lurraldekako 2. Maila). 15:30, Elorri.
▶ Tolosa-La Salle (Lurraldekako 2. Maila). 16:00, Usabal.
▶ Tolosa-Amara Berri (Nesken Liga). 18:00, Usabal.
▶ Billabona-Trintxerpe Azkuena (Jubenil 1. Maila). 15:30, Arratzain.
▶ Tolosa-Hernani (Jubenil 1. Maila). 14:00, Usabal.

Pilota.

▶ Aurrera-Saiaz-Urnieta (Mattin de la Sotilla-Xabier Mujika; kadeteen maila). 11:00, Bidania.
▶ Aurrera-Saiaz-Elordi (Aritz Mujika; jubenil maila). Elkarteen Arteko Txapelketako finalerdia). 11:00, Bidania.
▶ Mundaro-Aurrera-Saiaz (Aratz Irazusta-Iñaki Errazkin; jubenil maila). 18:00, Astigarraga.
▶ Aurrera-Saiaz-Kuku (Garikoitz Galarraga; senior maila). 11:00, Bidania.
▶ Aurrera-Saiaz 1-Hernani (Unai Aspe-Ruben Zapirain; senior maila). Elkarteen Arteko Txapelketako finalerdia). 17:00, Hernani.
▶ Aurrera-Saiaz 2-Illunpe (Mikel Olaetxea-Iker Huarter; senior maila). Elkarteen Arteko Txapelketako finalerdia). 17:00, Hernani.

ETZI

Areto futbolak.

▶ Internacional-Denak taberna (3. Maila A). 10:00, Mons.

Futbola.

▶ Santutxu-Tolosa (Jubenil Nazional Maila). 16:45, Mallona-Bilbao.
▶ Danena-Gure Txokoa (Lurraldekako 1. Maila). 11:30, Elbarrena.
▶ Eibartarrak B-Intxurre (Jubenil 1. Maila). 12:30, Eibar.

ASTEARTEA, ABENDUAK 6

Futbola.

▶ Ordizia-Intxurre (Lurraldekako 2. Maila). 15:30, Altamira-Ordizia.

Pilota.

▶ Olazabal-Jauregi / Olaetxea-Apraz (DV Torneooko finalaurrea). 11:30, Beotibar.

OSTEGUNA, ABENDUAK 8

Futbola.

▶ Intxurre-Burumendi (Jubenil 1. Maila). 15:30, Elorri.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Leitza. Larraia, M. I. Elbarren, 95. 112.
Tolosa. Tolosa, M. I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

IRRATIA

Txolarre irrattia (107.5, 101.2 FM)

11:00-14:00. *Tolosaldeko Ahotsa* magazina: 11:00etan, eguraldia Jose Landarekin, HITzen errepaso, albistek, oharrak...; agenda, iritziak, elkarrizketak, albistek...; lehiaketa eta disko eskainiak.
19:00-21:00. *Tolosaldeko Ahotsa* (errepikapena).
21:00-22:00. *Zaharrak Berri*, Hala Bedi irratiaren saioa, Arrosa Irrati Ekizpen Zentroaren Eskutik.
22:00-23:00. *Arkako show* musika saioa.

▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶ Urtebetetzea, jaiotza, ezkontza, jaunartzea, urrezko etzeiak, agurrak... hemen argitaratzeko etorri HITZaren egoitzara; ekarri argazkia



ZORIONAK Enaut Balerdi Azpiroz (Lizartza). Gaur 2 urte gure ebeko xagutxoak! Ondo pasa familia gutziaren partetik.
URTE ASKOAN Oier Garaiburu (Berastegi). Gaur 3 urte. Zorionak eta muxu bat sendiaren partetik.
URTE ASKOAN Zorionak, txiki! Hasi juergak uzten ta esne pikat edaten, pikat gehio hazi ta ligatzen hasteko. Ondo pasa, txiki!

jantzi hitzaren jertse berriak

HITZaren egoitzetan salgai